BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1494

AGINDUA, 2012ko martxoaren 7koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek giza eskubideen, bizikidetza demokratikoaren eta indarkeriaren deslegitimazioaren arloan garatutako programak eta ekimenak diruz laguntzeko laguntzak lortzeko deia egiteko dena.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948) garrantzi handiko erreferentzia historikoa izan zen; izan ere, lehen aldia izan zen instantzia unibertsal batek denei errespetatu behar zaizkien eskubideak aldarrikatu zituena, hartarako arrazoi bakarra gizakiak izatea izanik.

Baina eskubideak aldarrikatzeari eta eskubide horiek egiaz ezartzeko eta bermatzeko borrokari dagokionez, orain dela gutxi arte ez gara jabetu beharrezkoa dela giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzko lan sistematiko, koordinatu eta iraunkorra egitea.

Nazio Batuek bultzatutako eta Vienan 1993an egindako Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia hartu behar da inflexio-puntutzat. Konferentzia haren azken deklarazioan eta ekintza-programan zehatz-mehatz bildu zen giza eskubideei buruzko hezkuntza, trebakuntza eta informazio publikoa ezinbestekoak direla komunitateen artean harreman egonkor eta harmoniatsuak ezarri eta sustatzeko, baita elkar ulertzea, tolerantzia eta bakea bultzatzeko ere.

Vienako Konferentziaren ondorioz, NBEren Batzar Nagusiak, 1994ko abenduaren 23ko 49/184 Ebazpenean, Giza Eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada izendatu zuen 1995-2004 aldia. Giza eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen hamarkadarekin hasitako lan eskerga horrek ez zuen denbora-mugarik ezarri nahi. Aitzitik, nazioarteko komunitatea mugiarazi nahi zuen, oinarri sendoak ezartzeko eta oinarri horien gainean etengabe eta iraunkortasunez aurrera egiteko. Horregatik, hamarkada amaitzean eta programaren emaitzak ebaluatu ondoren, une honetan indarrean dagoen jardun-programa jarri zen abian. 2004ko abenduaren 10eko 59/113 Ebazpenean, NBEren Batzar Nagusiak Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako Mundu Programa aldarrikatu zuen. Programa 2005eko urtarrilaren 1ean gauzatzen hasi zen, eta ondoz ondoko zenbait etapatan egituratu da, giza eskubideen esferako hezkuntza-programak sektore guztietan gauza daitezen sustatzeko.

Bestalde, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan, Euskadin garrantzi handia dauka Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko 2010-2011 Planak, terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako beste tresna bat baitakar. Eusko Jaurlaritzak, gainera, neurri aktiboak sustatu nahi ditu deslegitimazio hori Euskal Autonomia Erkidegoko udalen esparruan ere gauzatu dadin.

Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko 2010-2011 Planak ezartzen du honako honek izan behar duela jarduteko lehentasunetako bat: bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza lantzea udal-eremutik.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio agindu bidez laguntza hauen deialdia egin eta laguntzok arautzea, hala ezarrita baitago Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 26. eta 28. artikuluetan, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan, eta Euskadiko

Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.2 artikuluan.

Horregatik guztiagatik, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

1.– 2012. urtean zehar EAEko toki-erakundeek egiten dituzten giza eskubideen, bizikidetasun demokratikoaren eta indarkeria deslegitimatzearen aldeko programa eta ekimenak norgehiagoka bidezko erregimenean diruz laguntzeko laguntzen deialdia arautzea da agindu honen helburua.

Agindu honen helburutik kanpo geratuko dira sariak eman besterik egiten ez duten programa eta proiektuak.

2.– Programa eta proiektuak 2012. urtean zehar gauzatuko dira.

2. artikulua.– Diru-hornidura.

Diru-laguntzen programa honetara berrehun eta hirurogeita bederatzi mila berrehun eta laurogei (269.280) euro bideratu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan 2012. urterako aurreikusitako partidaren kargura.

3. artikulua.– Eskatzaileak.

Agindu honetako 12. artikuluko betebehar eta baldintzak betetzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainontzeko toki-erakundeek eska ditzakete laguntza hauek.

4. artikulua.– Izapidetze elektronikoa eta presentziala.

1.– Interesa duten udal eta gainontzeko toki-erakundeek, bitarteko elektronikoen bitartez eskatu eta kontsultatu ahal izango dute prozedurari buruzko informazioa; izapideak ere bide beretik egin ahal izango dituzte.

2.– Honako hauek arautzen dute izapidetze elektronikoa: Administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuak, eta E-Administraziorako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzeko den Informatika eta Telekomunikazio zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak.

3.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainontzeko ereduak modu presentzialean nahiz elektronikoki nola izapidetu jakiteko xehetasunak, euskadi.net-eko egoitza elektroniko honetan eskura daitezke: http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-dheduki/eu/contenidos/ ayuda_subvencion/ddhh_aytos_2012/eu_ayuda/ficha_procedimiento.html.

4.– Eskaeraren eta dokumentazioa aurkeztearen izapideak bide batetik egiteak (modu presentzialean edo elektronikoan) ez du prozeduraren hurrengo izapideak bide beretik egitera behartzen; edozein unetan aldatu daiteke izapideak egiteko modua.

Eskaera egin ondorengo izapideak, bide elektronikoa aukeratuz gero, http://www.euskadi.net/misgestiones gunean egingo dira.

5. artikulua.– Eskabideen epea, aurkezpena eta formalizazioa.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Eskabideak Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Saileko Giza Eskubideen zuzendariari zuzendu behar zaizkio (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskabideak modu presentzialean aurkeztu nahi izanez gero, leku hauetara eraman daitezke: Giza Eskubideen Zuzendaritzara (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz); Herritarrentzako Zerbitzuaren (Zuzenean) bulegoetara; lurralde-ordezkaritzetara; beste erakunde laguntzaileetara. Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zuen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeko 38.4 artikuluak ezarritako bideak ere erabil daitezke, eskaera-orri normalizatua behar bezala eta oso-osorik betez. Eskabide-eredua euskadi.net-eko egoitza elektroniko honetan eskura daiteke: http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-dheduki/eu/contenidos/ ayuda_subvencion/ddhh_aytos_2012/eu_ayuda/ficha_procedimiento.html.

Era berean, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ahal izango dira, euskadi.net-eko egoitza elektroniko horretara sartuta.

3.– Erakunde eskatzaileek aukeratzen duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak eta horiekin batera doazen ziurtagiriak. Halaber, eskabidearen ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko azaroaren 24ko 10/1984 Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek ezartzen duten bezala.

6. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskaerak, 13. artikuluaren erantzukizunpeko adierazpenak barne, inprimaki normalizatuan bete beharko dira. Euskadi.net-eko egoitza elektronikoan ere eskuragarri daude inprimaki horiek.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Udaleko edo toki-erakundeko idazkariak egindako ziurtagiria, eskaera sinatzen duen pertsona erakundearen ordezkaria dela ziurtatzen duena.

b) Toki-erakundearen ordezkariak ez badu baimenik ematen bere nortasun-datuak administrazioak Barne Ministerioan begiratu edo egiaztatzeko, datuak paper-euskarrian (fotokopiak) edo euskarri elektronikoan (elektronikoki sinatutako kopia eskaneatua, pdf formatuan) aurkeztu beharko du. Nortasuna egiaztatzeko erabil daitezkeen dokumentuak nortasun-agiri nazionala eta pasaportea dira.

c) Programa edo proiektuaren memoria zehaztua. Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira: helburua, metodologia, hartzaile izan daitezkeenak (sexuaren arabera bereizita), egingo diren jardueren lurralde-eremua eta gauzatze-egutegia, eta genero-ikuspegia sartzeko aurreikusi den modua.

d) Programa edo proiektua gauzatzeak eragingo duen kostuaren aurrekontua, partiden arabera banakatua. Bertan, proiektua finantzatzeko gainerako bideak, baleude, zehaztu egingo dira.

e) Diruz laguntzeko eskatzen den programa edo proiektu berbererako eskatutako beste diru-laguntza guztien zerrenda. Bertan, diru-laguntza horiek zein administrazio publikori edo erakunde publiko edo pribaturi eskatu zaizkien aipatu beharko da, baita eskaeren egoera zein den ere (ukatu

egin diren, ebatzi gabe dauden edo onartu egin diren eta zein izan den onartutako zenbatekoa). Horrelakorik ez badago, diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako programa edo proiektuetarako ez dela beste inongo laguntzarik eskatu adierazten duen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da.

f) Erakunde eskatzaileak programa edo proiektua gauzatzeko dituen baliabide materialen eta giza baliabideen adierazpena. Horretaz gain, honakoak ere adierazi beharko dira: alde batetik, erakundeak ba ote duen berdintasunaren alorrean trebatuta dagoen edota ibilbidea duen pertsonarik; eta, bestetik, boluntario gisa jarduten duten pertsonen kopurua. Programa edo proiektuan inolako ordainsaririk gabe parte hartzen dutenak joko dira boluntariotzat.

g) Ebazpena eman aurretik Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egotearen ziurtagiria.

2.– Era berean, programa edo proiektua hobeto balioesteko, eskatzaileek egokitzat jotzen duten beste edozein dokumentazio osagarri aurkeztu ahal izango dute.

3.– Programa edo proiektuak dagoeneko gauzatuta baldin badaude, egindako gastuak justifikatzeko behar diren dokumentu guztiak ere aurkeztu beharko dira, agindu honetako 14. artikuluan eskatzen den moduan.

4.– Espedientea behar bezala osatzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak eta azalpenak eska diezazkioke Giza Eskubideen Zuzendaritzak erakunde eskatzaileari. Gainera, eskatzaileak emandako datuak egiaztatu ahal izango ditu.

7. artikulua.– Eskaerako akatsak zuzentzea.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertzerakoan osatu gabe dagoela edo ezinbesteko daturen bat falta dela ikusten badu Giza Eskubideen Zuzendaritzak, gehienez 10 eguneko epea emango die eskatzaileei, atzemandako akatsak zuzentzeko. Era berean, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71. artikuluan ezarritakorekin bat etorriz, jakinaraziko zaie horrela egiten ez badute eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela.

8. artikulua.– Epaimahai kalifikatzailea.

Laguntzak emateko proposamena epaimahai batek egingo du; honako hauek izango dira epaimahaikideak:

Epaimahaiburua:

– Justizia eta Herri Administrazio Saileko Justiziako zuzendaria edo hark eskuordetutako beste norbait. Kalitatezko botoa izango du.

Epaimahaikideak:

– Lehendakaritzako Koordinazioko zuzendaria edo hark eskuordetutako beste norbait.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo hark eskuordetutako beste norbait.

– Kultura Saileko Gazteriako zuzendaria edo hark eskuordetutako beste norbait.

– Herrizaingo Saileko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria edo hark eskuordetutako beste norbait.

– Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Inmigrazioko zuzendaria edo hark eskuordetutako beste norbait.

– Lehendakaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria edo hark eskuordetutako beste norbait.

– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia edo hark eskuordetutako beste norbait.

Idazkari-lanetan Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikari bat arituko da. Giza Eskubideen zuzendari andreak izendatuko du.

9. artikulua.– Esleitzeko irizpideak.

Epaimahai kalifikatzaileak egingo du laguntzak emateko proposamena eta, bertan, erakunde onuradunen lehentasun-hurrenkera eta emandako laguntzen zenbatekoa ezarriko ditu, proposatutako proiektu bakoitzak ondorengo balorazio-irizpide hauek aplikatuz lortzen duen puntu-kopuruaren arabera:

a) Proiektuak eskaintzen duen aukera edo interes soziala. Proiektuaren interes soziala balioesteko, kontuan hartuko da proiektua zenbateraino den egokia Bizikidetasun Demokratikoa Sustatzeko eta Indarkeria Deslegitimatzeko 2010-2011 Planaren esparruan garatu beharreko helburuak, ildo estrategikoak eta ekintzak eta, batez ere, bizikidetasun-plan integralak (proiektu isolatuen ordez) garatzea helburu duten proiektuak erraztu eta sustatzeko (plana Eusko Jaurlaritzaren euskadi.net web-orrian kontsulta daiteke, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren barruko Giza Eskubideen Zuzendaritzari dagokion atalean): 0-20 puntu.

b) Gauzatu beharreko proiektuak burutu behar den arloaren barruan dituen originaltasuna eta indar estrategikoa, eta egon litekeen hartzaile-kopurua. Genero-ikuspegia ere baloratuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.2 artikuluarekin bat etorriz: 0-20 puntu.

c) Proiektuarekin jarraitzeko borondatea, eta proiektuak estrategia integral, etengabea eta iraunkorra ezartzeko daukan potentziala: 0-10 puntu.

d) Toki-erakundeak eskolako hezkuntza-eremuarekiko eta gizarte– eta hezkuntza-arloko sarearekiko duen koordinazio-maila: 0-15 puntu.

e) Finantziazio-iturriak: 0-10 puntu.

f) Giza eskubideen nazioarteko erakundeek eta, bereziki, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoak (www.ohchr.org) bultzatutako esku-hartzeen ildo, estrategia eta helburuekiko koherentzia-maila eta horiek zenbateraino kontuan hartzen diren: 0-15 puntu.

10. artikulua.– Diru-laguntzen esleipena.

1.– Diru-laguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira, aurreko artikuluan ezarritako baremoak kontuan hartuz. Diru-laguntza lortzeko, derrigorrezkoa izango da eskaerak gutxienez 20 puntu lortzea.

2.– Proiektu bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa ezartzeko, banaketa proportzionalaren sistema aplikatuko da, eta sistema horren arabera, proiektu bakoitzerako diru-laguntzaren zenbatekoa aurreko artikuluan ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz balorazio-fasean lortutako puntuazioaren arabera zehaztuko da. Puntuazioa portzentaje bihurtuko da, eta portzentaje hori onartutako aurrekontuari aplikatu zaio, baina aurrekontuaren % 85eko muga gainditu gabe.

3.– Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik hilabete pasa ondoren eskatzaileak ez badu jasotzen onartutzat jo beharreko aurrekontua jakitera ematen duen Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpenik, eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua hartuko da onartutako aurrekontutzat.

4.– Emandako diru-laguntzaren zenbateko osotik % 10 funtzionamenduko eta administrazioko gastuetarako erabil daiteke, soldata eta ordainsarietarako izan ezik. Horretarako ere erabili ahal izango da, soldata eta ordainsariak programa garatzeko ezinbestekoak badira eta azalpen-memorian hala adierazita azaltzen bada.

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako izaera bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren bat dela-eta hasitako itzulera– edo zehapen-prozeduraren bat egongo balitz, ezingo da diru-laguntzarik eman eta ordaindu prozedura horiek bukatu arte.

11. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekurtsoak, ebazteko epea eta publizitate-prozedura.

1.– Giza Eskubideen Zuzendaritzari dagokio deialdi honen kudeaketa-lanak egitea.

2.– Giza Eskubideen zuzendariak berariaz emandako ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak, betiere Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamena aztertu ostean. Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea bukatuko eta, hortaz, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Justiziako sailburuordeari, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

3.– Agindu honen babesean aurkeztutako eskaerak ebazteko eta eskatutako laguntzak eman edo ukatzeko ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik lau hilabetekoa izango da. Epe horretan berariazko ebazpenik eta jakinarazpenik ematen ez bada, eskabideei ezezkoa eman zaiela ulertuko da, Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, nahiz eta lege horrek administrazioari berariaz ebazteko betebeharra ezartzen dion.

4.– Publizitate-printzipioa betetzeko, diru-laguntzen ebazpena banan-banan jakinarazteaz gain, Giza Eskubideen zuzendariaren ebazpen baten bidez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da xedapen honen babespean emandako diru-laguntzen onuradun diren udalen eta gainontzeko toki-erakundeen zerrenda, zenbateko diru-laguntza jaso duten zehaztuta.

12. artikulua.– Toki-erakunde onuradunen betebeharrak eta baldintzak.

Udal eta gainontzeko toki-erakunde onuradunek hau guztia bete beharko dute:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Diru-laguntza ematearen aldeko ebazpena erakunde onuradunari jakinarazi eta hurrengo egunetik 15 eguneko epean onuradunak ez badu idatziz adierazten diru-laguntzari uko egiten diola, laguntza onartutzat joko da.

2.– Giza Eskubideen Zuzendaritzari honako hauek justifikatzea: diru-laguntza emateko betekizun eta baldintzak betetzen direla eta diruz lagundutako proiektua burutu dela. Horrez gain, proiektua guztiz edo partzialki betetzea ezinezkoa egiten duen edozein gorabeheraren berri ere eman beharko zaio.

3.– Hizkuntza modu sexistan ez erabiltzea eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua duten irudiak erabiltzea diruz lagundutako programa edo proiektua gauzatzerakoan.

4.– Emandako diru-laguntzak xede duen proiektu zehatza egiteko erabiltzea diru-laguntza hori, agindu honen 16.1.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatu behar denean izan ezik.

5.– Proiektuak gauzatzeko aldian proiektu horiek finantzatzeko eman edo ukatu diren diru-laguntza eta laguntzen berri ematea Giza Eskubideen Zuzendaritzari, jakin bezain laster.

6.– Laguntzak ematen dituen erakundearen egiaztatze-jarduketei men egitea. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura jasotako laguntzak eta diru-laguntzak direla-eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharreko kontrol-jarduerei eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arautegi espezifikoan ezarritako jarduerei men egitea.

7.– Diru-laguntza jasotzen duten programa edo proiektuak zabaldu, hedatu edo, hala badagokio, argitaratzen badira, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren laguntza jaso dela adieraztea, diruz lagundutako proiektua dela-eta emandako ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

8.– Diruz lagundu beharreko programa eta proiektuek eta horiek sustatzen eta gauzatzen dituzten pertsonek bizitza-eskubidea eta Giza Eskubideen 1948ko abenduaren 10eko Deklarazio Unibertsalean bildutako gainontzeko giza eskubideak zorrotz errespetatuko dituztela bermatzea. Halaber, Eskubide Zibil eta Politikoen 1966ko Itunean eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen 1966ko Hitzarmenean adierazitakoak errespetatzea eta terrorismoa goretsi edo justifikatzen duten jarduerak saihestea ere bermatu beharko da.

13. artikulua.– Toki-erakunde eskatzailearen betebehar eta baldintzak egiaztatzea:

1.– Administrazio publikoak esleituta dituen egiaztapen–, kontrol– eta ikuskaritza-ahalmenak alde batera utzi gabe, laguntza eskatzen duen toki-erakundeak espresuki eman dezake baimena organo kudeatzaileak gainontzeko datuak edo dokumentuak lortu edo egiaztatzeko, bai bide presentziala erabiltzen duenean eta bai bide elektronikoa erabiltzen duenean.

2.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua aplikatuz, honako betebehar hauek egiaztatuko dira eskabide normalizatuan, erantzukizunpeko adierazpen baten bidez:

– Edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturi helburu berbererako eskatutako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabideen berri ematea. Halakoren bat lortuz gero, horren berri ere ematea.

– Itzulketa– edo zehapen-prozeduraren batean sartuta ez egotea edo, egon izanez gero, prozedura hori bukatuta egotea.

– Toki-erakunde eskatzaileak ez edukitzea zigor– eta administrazio-arloko zigorrik diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen dionik, edo ez egotea diru-laguntza edo laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik.

– Gainera, eskaeran eta horrekin batera doan dokumentazioan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta laguntzen onuradun izateko indarrean dagoen arautegiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela adierazi beharko du eskatzaileak.

Gainontzeko betekizunak egiaztatzeko modua lehen aipatutako euskadi.net-eko egoitza elektronikoan zehaztuko da.

Toki-erakundeek, laguntzaren ebazpena eman aurretik, aipatutako betekizunak egiaztatuko dituzte, dagokion ziurtagiria aurkeztuz edo organo kudeatzaileak zuzenean egiaztapena egiteko baimena emanez.

3.– Toki-erakunde eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egon beharko du diru-laguntzaren ebazpena eman baino lehen.

14. artikulua.– Ordaintzeko modua.

1.– Diru-laguntzak zatika ordainduko dira, modu honetara:

a) Lehenengo zatia, hau da, diru-laguntza osoaren % 50, diru-laguntza eman dela jakinarazten den unean.

b) Bigarren ordainketa, gainontzeko % 50a, 2013ko martxoaren 31 baino lehen, diru-laguntzari emandako erabilera Giza Eskubideen Zuzendaritzan justifikatu ondoren.

2.– Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, laguntza ematearen aldeko ebazpena eman baino lehen bukatuta dauden proiektuei dagozkien diru-laguntzak osorik eman daitezke, ordainketa bakarraren bidez, ondorengo artikuluak ezarritakoari jarraituz eskabidearekin batera diruz lagundutako proiektua gauzatu dela egiaztatzen duten justifikagiriak eta bestelako agiriak aurkeztuz gero.

15. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea.

Erakunde onuradunek, emandako diru-laguntzaren erabilera justifikatzeko agiri hauek aurkeztu behar dituzte, 2013ko martxoaren 31 baino lehen, Giza Eskubideen Zuzendaritzan:

1.– Diruz lagundutako proiektua garatzeko egindako gastuak justifikatzen dituzten faktura eta ordainagiriak. Nolanahi ere, laguntzaren esleipendunak jatorrizko dokumentuak administrazioaren esku uztea ezinezkoa duela behar bezala egiaztatzen badu, jatorrizko dokumentuak zein kopiak aurkeztuko ditu, eta kopiak itzuliko zaizkio, konpultsatu ondoren. Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagozkion fakturak eta ordainagiriak aurkeztu behar dira, behar bezala ordenatuta eta zenbakituta, eta zerrenda batean adierazita dokumentu bakoitzean adierazitako gastua zertarako egin den (fakturek bat etorri beharko dute Fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen araudia onartzen duen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzen duen azaroaren 28ko 1496/2003 Errege Dekretuaren 6. artikuluak ezartzen dituen eskakizun formalekin).

2.– Eredu ofizialaren araberako soldata-ordainagirien originalak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-agiri ofizialak, kontratatutako lan-kontratuko langileei dagozkien gastuak justifikatzeko.

3.– Aldi baterako kolaborazio-gastuen ordainagiriak. Besteak beste datu hauek adierazi behar dituzte: jasotzailearen datuak, bere Nortasun Agiri Nazionala NAN, ordainketaren kontzeptua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako PFEZ atxikipena.

4.– Diruz lagundutako proiektuaren memoria zehatza, datu hauek jasotzen dituena: onuradunak sexuaren arabera bereizita eta genero-ikuspegia nola txertatu den.

5.– Argitaratutako programa, iragartzeko kartel, argazki eta bestelako material grafikoaren aleak, idatzizkoak zein soinudunak.

6.– Izapidetzea bide telematikotik eginez gero, aipatutako dokumentazioa eskaneatuta eta elektronikoki sinatuta aurkeztu beharko da. Nolanahi ere, administrazioak jatorrizko dokumentazioa eskatu ahal izango du, beharrezkotzat jotzen duenean.

Justifikazio presentzial nahiz elektronikoaren izapideari buruzko xehetasunak euskadi.net-eko egoitza elektroniko honetan eskuratu daitezke: http://www.jusap.ejgv.euskadi.net/r47-dheduki/eu/contenidos/ ayuda_subvencion/ddhh_aytos_2012/eu_ayuda/ficha_procedimiento.html

16. artikulua.– Diru-laguntzak emateko eskakizunak ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea.

1.– Ondoren zehazten direnak gertatuz gero, diru-laguntzak lortzeko eskakizunak ez direla bete ulertuko da:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat bere garaian aurkeztutako proiektuaren arabera onartu zen proiektuari ez dagokion bestelako proiektu baterako erabiltzea.

b) Aukeratutako proiektuan aldaketak egitea, salbu eta funtsezkotzat hartzen ez direlako Giza Eskubideen zuzendariak esanbidez onartzen baditu, betiere baimen arrazoitua eskatu ondoren.

c) Eskaeran, horrekin batera aurkeztutako dokumentazioan edo justifikagirietan datu faltsuak agertzea.

2.– Erakunde onuradunak ez baditu betetzen artikulu honetako 1. puntua, diru-laguntza emateko ebazpenean edo agindu honetan ezarritako beste edozein baldintza edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko VI. tituluan adierazitako betebeharrak, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko du, eta, hartara, diru-laguntza eta legezko interesak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio; gainera, zehapenak ere ezarri ahal izango zaizkio. Horretarako, honako lege-xedapen hauek aplikatuko dira: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua edo dekretu hori ordezkatzen duen araua, eta aipatutako azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua. Emandako diru-laguntza aldatzeko ebazpena eta justifikatu gabeko zenbatekoak itzultzeko ebazpena, gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

17. artikulua.– Laguntzen bateragarritasuna.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira proiektu berbera gauzatzeko beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako diru-laguntza edo laguntzekin. Proiektu bakar baterako lortutako diru-laguntza edo laguntza guztien batuketak proiektuaren aurrekontua gainditzen badu, agindu honen bidez emandako zenbatekoari gehiegizko kopuru hori murriztuko zaio.

18. artikulua.– Argitaratzea.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak eskubidea izango du agindu honetan ezarritakoaren arabera diru-laguntza jasotzen duten ikerketak eta azterlanak edozein euskarritan argitaratzeko, lan horiek jasotzen dituenetik urtebeteko epean, eta betiere interesdunak esanbidez baimen idatzia eman ostean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du. Aurka egiteko, aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete interesdunek Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

Bigarrena.– Agindu honetan esanbidez aurreikusi ez den guztian, prozedurari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Hirugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 7a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.